


## Isuna Ilunbeko kotilioiari

1999ko urtezaharreko Ilunbeko kotilioia antolatu zuen Kursaal Congress enpresak 21.000 euroko isuna ordaindu beharko du. Zezen plazan kotilioia egin eta hurrengo egunetan, 300dik gora salaketa jarri ziren, antolatzaileek iragarritakoa ez zutela bete argudiatuta. Besteak beste, berogailurik jarri ez izana salatu zuten. Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak salaketak aztertu eta hiru ikerketa txosten zabaldu zizkion Kursaal Congress-i, haietako bat "publizitate engainagarria" egin izanagatik. Azken honen ildotik, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak 21.000 euroko isuna ezarri zion. Antolatzaileek helegitea aurkeztu zuten, baina EAEko Auzitegi Nagusiak aurretik ezarritako zigorra berretsi du aste honetan.

## Antigua-Luberri institutua ofizialki inauguratu dute

Antigua-Luberri Bigarren Hezkuntzako Institutua ikasturte hasieratik martxan dagoen arren, joan den asteazkenean, hilak 18, egoitzaren inaugurazio ekitaldi ofiziala egin zen. Bertan, Maria Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako sailburua, Ramon Etxezarreta Donostiako Kultura eta Euskara zinegotzia eta Arri txu Marañon Gazteria zinegotzia izan ziren. Antigua Luberri Institutuak 12 eta 18 urte bitarteko 500 bat ikasle ditu gaur egun eta nabarmentzekoa da, Gipuzkoa osoan, 18 urtetik gorakoentzat aho eta hortz higienerari buruzko goi mailako zikloa eskaintzen duen ikastetxe bakarra dela.



## Hitz eta pitz

### Irigoien liburu berriaz

Joan Mari Irigoienek "Ipuin batean bezala" eleberrri erromantikoa kaleratu berri du. Horren harira, elkarrizketa egin zioten joan den igandeko Euskaldunon Egunkarian. Erromantizismoari buruz galdetuta, honakoa zioen idazle altzatarrak: "Gaur XVIII. edo XIX. mendeetako erromantizismoa gehiegizkoa gerta daiteke. Baina denok gara zuriak eta beltzak, denok gara erromantikoak eta praktikoak (...)". Gaixotasuna edota familiaren garrantziaz gain, ametsak jorratu ditu Irigoienek azken eleberrian. Ametsak abiapuntu zergatik hartu dituen galdetuta, Irigoienek zera zioen: "Urteetan aurrera noala, askotan atzeraka begira jarri eta pentsatzen dut ia benetan bizi izan dudan bizitza hau ala amets bat den".



## euskara da oparirik onena



Zabal itzazu mundura jatorrizko bertsioan 100 produktu gora dituzan lehen bidaiari onenak, mahal jokoak, bideo jokoak eta CD-ROMak dituzuzain. Alai! Bertsio onenak, iragarriak eta euskaraz!

Bete ezazu txartel hau eta bidali aldizkariaren helbidera. Bideoak, bideojokoak, mahal jokoak, haurrentzako puzzleak ... ditugu zuri oparitzeko.

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ P.K. \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ Tel. \_\_\_\_\_

**GIJURU TXULO**  
Donostiako asteleku

**euskaraz? bal.**  
Euzkara eta Euskaraz? bal.  
Euzkara eta Euskaraz? bal.  
Euzkara eta Euskaraz? bal.